

1. DATA eta LEKUA: Aramaio ibarrari bira Arrasatetik mendi martxa **urriaren 2an ospatuko da**, Arrasate herrian hasi eta amaituta. **Irteera goizeko 7:00etan izango da Biteri plazan.**
2. IBILBIDEA: proba Aramaio ibaiaren arroak osatzen duen azaleraren mugetatik iragaten da. Luzeak 41km (EMF-aren III Zirkuituaren barne) eta laburrak 34km luze dute eta igoera metatuak 2.937 eta 2.134 metrokoak dira.
3. PARTE-HARTZEA: 18 urtetik gorako mendizale guztiak dute proban parte hartzeko aukera. Adin txikikoek gurasoen baimenez eta nagusi batek lagundurik egingo dute proba.
4. IZEN-EMATEAK: **300 parte-hartzaileko** mugaz, irailaren 1etik, irailak 30 arte. **www.zirkuitua.com** webgunean, edo egunean bertan irteera lekuan (parte-hartzaile kopurua bete ez bada).
5. PREZIOA: **20€ online bidez eta 25€ egunean bertan.** Aipatutako zenbatekoek zera bermatzen dute: proban hartzeko eskubidea, erantzukizun zibileko aseguruia eta antolakuntzak parte-hartzaileendako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea.
6. OROIGARRIAK: **mendi martxa bukatzean mendi materiala oparituko da, www.zirkuitua.com web gunean apuntatu eta proba amaitzen dutenentzat.**
7. SEINALEZTAPENA: Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, kartel adierazleekin eta ageriko balizaje zintekin.
8. KONTROLAK: probaren luze-zabalean antolakuntzak hainbat kontrol-gune jarriko ditu eta berauetatik pasatzea ezinbestekoa izango da, gune hauetan egingo baitira erregelamentuko igarotze-kontrolak.
9. HORNIDURA: 3 jan-edan postu atonduko dira. Postu hauetan **jana eta freskagarriak eskainiko zaizkie parte-hartzaileei.**
10. IGAROTZE-DENBORAK: Parte-hartzaileek, gehienez ere, 9 ordu izango dituzte helmugara iristeko. Probaren amaiera adieraziko duten bi arduradun izango dira. Baztertuta edo kanporatua den parte-hartzaile orok gertuen duen kontrol gunean eman behar du bere parte-hartze txartela eta antolatzaileek agindu bezala utzi behar du proba.
11. BAZTERTZEAK: Antolakuntzako arduradunek parte-hartzaileak probatik baztertze ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan:
  - Probako arauak hausten dituztenean
  - Antolatzaileek esandakoari jaramonik egiten ez diotenean edota gainontzeko parte-hartzaileekiko kiroltasunez jokatzeko ez dutenean
  - Zaborrak kontrol-gunetako ontzietatik kanpo botatzen direnean
12. SAILKAPENA: mendi martxa honen xedeari kasu eginez, ez da sailkapenik egongo. Parte hartzaileen artean SAILKATU DIRENAK eta SAILKATU EZ DIRENAK bereiztuko dira.
13. INGURUGIROA: Martxa, bere zatirik handienean, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela, **zaborrak kontrol-gunetako ontzietatik kanpora ez botatzeko eta naturarekiko errespetuz jokatzeko** eskatuko zaie parte-hartzaile guztiei.
14. OSASUN-LAGUNTZA: Antolakuntzak sorospen eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu ibilbideko puntu estrategikoenetan.
15. SEGURTASUNA: Antolakuntzak, aurretik martxako batzordearekin hala adostuz gero, proba ordeko ibilbidetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak hala eskatzen badu, mendi martxa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.
16. LAGUNTZA EZBEHARRETAN: Parte-hartzaileek betekizuna izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzeko eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri emateko.
17. ERANTZUKIZUNA: Antolakuntzak erantzukizun oro ukatuko du istripuren bat gertatuz gero edota zabarkeriaz jokatzeko bada; eta baita parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere. Parte hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonari eragindako kalte ororen erantzukizuna.